

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lanbide heziketaren inguruan elkarlan proiektu bati ekiteko lehenengo lan-bilera egin du gaur Hezkuntza sailak Aquitaniako ordezkariarekin

Akitanian lanbide heziketa ikasten ari diren gazteak Nafarroako enpresekin harremanetan jarri ahal izateko, eta, aldi berean, ikasle nafarrek Akitaniako enpresekin praktikak egiteko aukera izan dezaten dauden aukerak aztertzeke bilera izan da

Asteartea, 2017.eko azaroak 28

Lanbide heziketaren inguruan elkarlan proiektu bati ekiteko lehenengo lan-bilera egin dute gaur Hezkuntza departamentuan, Maria Solana Kontseilariak eta Lanbide Heziketako zuzendari Esther Monterribiok, batetik, eta Insup elkarteko lehendakari Michel Ferillot, Eusko Ikaskutza zuzendari Iparraldeko zuzendari J.M.Larrasket eta Hasten Ventures enpresako Maitena Urmeneta ordezkariak, bestetik.



Solana Akitaniako ordezkariarekin.

Akitanian lanbide heziketa ikasten ari diren gazteak Nafarroako enpresekin harremanetan jarri ahal izateko, eta, aldi berean, ikasle nafarrek Akitaniako enpresekin praktikak egiteko aukera izan dezaten dauden aukerak aztertzeke bilera izan da. Ikasleen nazioarteko mugikortasunerako proiektuen baitan lekua izango luke egitasmoak eta hori dela eta, Hezkuntza departamentuak konpromisoa hartu du elkarlanerako proposamena zehazteko eta ahal dela, Hezkuntza departamentuak sustatzen dituen gainerako mugikortasun proiektuen kasuan bezala, lanbide heziketak dituen premiei erantzuteko beste herrialdeetan garatzen ari diren lanbide heziketako egitasmoekin elkarlana sustatzea.

Hezkuntza departamentua sustatzen ari den Lanbide Heziketa plan estrategikoaren ardatzetako bat da, hain justu, nazioartekotzea; eta Iparraldearekin elkarlana sustatzeko helburua departamentutik garatzen ari den gainerako mugikortasunerako proiektuekin bat egiten du; hala nola, PyreneneFP-Feder-Poctefa programa eta CoP-Transfronteriza2017 programa. Bi kasuetan Akitania Berria eta Euskadiko ikastetxeekin elkarlanean ari dira Nafarroako zentroak, ikasle nahiz irakasleen mugikortasuna elkarrekin latzeko. Etorkizunean, beraz, Euroerregionaren markoan lekua izango duten ekimenak. Era horretan, Nafarroako ikasleek

mugikortasun programa horietan parte hartuko balute, Erasmus+ programak diruz lagunduta egongo lirateke erdi mailako graduko ikasleen bi asteko egonaldiak.

Ekimen hauek guztiek, Euroerregikoaren G5 Nazioarteko Zentroen Mugaz gaindiko Elkarlanean jasoko lirateke.

Bestalde, PyreneneFP-Feder-Poctefa programa, 2019ra arte egongo da indarrean eta ikasketak eta praktika-aldiak sustatu nahi ditu Pirinioetako Lan Komunitatean, Katalunia, Aragoi, EAE, Akitania, Okzitania eta Nafarroaren artean. CoP-Transfronteriza2017 programak, berriz, enpresekin harremanak, Berrikutzaren eta ikastetxeen zuzendaritzaren kudeaketa, Lanbide Heziketa duala, Metodologia berrikuntzak eta ikastetxeen nazioartekotzea lantzek programa da. Azken honen barruan, Hendaiko Lanbide heziketako lizeoa eta Tafallako lanbide heziketa zentroaren artean egin dira bileran, erdi mailako ile-apaindegi graduko ikasleek praktikak egin ditzaten Hendaian nafarrek, eta Tafallan hendaiarrek. Horrekin batera, Elizondoko Lanbide Eskolaren eta Baionako Bernart Etxepare lizeoaren artean ere gauzatzen ari da ikasleen mugikortasuna.

Gaurko bilera, lehenengo enkontrua izan da, Nafarroako Lanbide Heziketa plan estrategikoaren berri emateko eta bi aldeen arteko lanerako konpromisoari bide emateko.